

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 654/2019 Erabakia, urriaren 22koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Gobernu Onerako Kode Etikoa berresteari, zeina Gobernu Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bidez onetsi baitzen

Aurreko legealdiaren hasieran, kudeaketa publikoan praktika egokiak ezarri eta garatzeko konpromisoa betetzeko, 2015/2019 legealdirako Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa onetsi zen, Foru Gobernu Kontseiluaren 2015eko irailaren 3ko Erabakiaren bitartez.

Geroago, 2018ko urtearen hasieran, hiru foru aldundiak, hiru hiriburuek eta Eusko Jaurlaritzak OGP Euskadi izeneko hautagaitza bateratua osatu zuten, eta OGP (Open Government Partnership/ Gobernu Irekirako Aliantza) izenekoan sartu ziren. Mundo mailako ekimen aldeaniztun horren xedea da gobernuak konpromiso zehatzak hartzea, gardentasuna sustatzeko, herritarrak gaitzeko eta gobernagarritasuna indartzeko.

Ekimenean parte hartzeko, 2018-2020rako ekintza plana aurkeztu behar izan genuen elkarrekin. Plan horren arabera, bi urte horietan, erakunde parte hartzailleek hartutako bost konpromiso ezarri eta garatu behar ditugu eta, horretarako, zenbait lantalde daude. Hauek dira bost helburuak: agintaldi planen bitartez kontuen berri ematea; open data Euskadi eta linked open data; Euskadiko herritarren parte-hartze Ilab-a; Open Eskola herritarren eskola irekia, eta Integritatearen Euskal Sistema.

Etika publikoa eta eredugarritasuna gure identitatearen ezaugarri izan daitezten, azken konpromisoa betetzeko, eta euskal administrazio sustatzaileen azken urteotako esperientzia kontuan hartuta, Integritatearen Euskal Sistema konpromisoa betetzearen ardura duen lantaldeak abian jarri du integritatearen eta gobernu onaren euskal eredu sortzeko ekimena.

Bestalde, Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 20.1 artikulua xedatzen du Foru Gobernu Kontseiluak gobernu onaren kode etikoa berrestea edo onetsi behar duela, Foru Gobernu Kontseilua osatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita lau hilabeteko epean, eta kode horretan honako hauek txertatu eta garatu behar dira: erakunde kalitaterako printzipioak, herritarrekin aritzeko printzipioak, eta printzipio etikoak eta jokabide printzipioak.

Kontuan hartuta aipatutako epea azaroaren 9an amaituko dela eta lantaldeak ez duela egun horretarako bere egitekoa amaituko, gobernu kontseilu honen ustez, egokia da 2015/2019 legealdirako onetsi zen kode etikoa berrestea, aipatutako arau agindua betetzeko, eta geroago onetsi ahal izango da oraindik lantzen ari den integritatearen eta gobernu onaren euskal ereduarekin bat etorriko den kode etiko berria.

Horregatik, Arabako Diputatu Nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Berrestea 2015-2019 legealdirako Arabako Lurralde Historikoko sektore publiko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa, zeina eranskin gisa baitoa.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko urriaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIAN

Euskera eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA